

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Onartzea betetzen direla Guardiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2012ko otsailaren 24ko bilkuran ezarritako baldintzak, zeinak "Castillarreko bizitegi multzo berriak" izeneko Guardiako 13 eta 14 area birpartzelatzeko proiektuari behin betiko onespena ematearekin batera ezarri baitzituen

Alkatearen 2021/183 Dekretuaren bidez, onartu egiten da Guardiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bidez ezarritako baldintzak betetzen direla. Baldintza horiek 2012ko otsailaren 24an egindako bileran ezarri zituen Tokiko Gobernu Batzarrak, "Castillarreko bizitegi multzo berriak" izeneko Guardiako 13 eta 14 area birpartzelatzeko proiektuari behin betiko onespena ematearekin batera.

Ezarritako baldintzak ez ziren funtsezkoak, eta zuzendu egin ziren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 25.1.b.2 eta 79.2 artikuluetan aurreikusitako zuzkidura karga kendu izanaren justifikazioa aurkeztu ondoren, eta birpartzelatze proiektuaren behin betiko testuari erantsi zitzaion. 2012ko ekainaren 6an, 13 eta 14 arearen hirigintza kudeaketarako hitzarmenaren aldaketa puntuala sinatu zen, eta ez da beharrezkoa jendaurrean jartzeko izapidea berriro egitea, behin betiko onetsi, betearazi beharrekotzat jo eta argitaratzeko.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da, aplikagarri diren hirigintza arauetan xedatutakoa betez.

Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, beraztertze aukerako errekurtsioa jar daiteke aldez aurretik, erabaki hau hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurrekoez gain egoki irizitako beste edozein errekurtsio ere aurkeztu ahal izango da.

Guardia, 2021eko urriaren 5a

Alkate-lehendakaria

LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO